

PROFETA ZELA EZ ZEKIEN PROFETA

“Casaldaliga ta Boff,
ta Camilo Torres,
Angelelli, Romero,
beste hainbat jendez,
pobreen alde azaldu
dira su ta garrez,
Ebanjelioari
erantzun beharrez.
Angelelli, Romero,
San Camilo Torres”
(Bitoriano Gandiaga).

Nor dugu Romero hori, Bitoriano Gandiagak bere poeman aipatzen duena “pobreen alde su ta garrez” ari dena Ebanjelioari zintzo izan eta zintzoki erantzun gurean bere bizia eman zuena?

Oscar Romerori (1917-1980) buruzko idazlanak erdaraz ugari aurki ditzakegu. Urriak dira bere testigantzak euskeraz. Hori dela eta, hona beraren gaineko liburu bati buruzko oharrak eta zenbait pasarte. Irakurlearen egarria biztuten badugu, bere bizia eta idazlanak hobeki ezagutu eta haietan sakontzeko, pozik geratuko ginateke.

1. Sarrera

Idazlan hau egiterakoan, gure abiapuntua *Piezas para un retrato*¹ liburua izan da, María López Vigil egilearena. Hainbat eta hainbat testigantza jasotzen ditu liburu honek Oscar Romerori buruzkoak.

Egia esan oso atal autobiografiko gutxi dago. Hala ere, sarri bere hurbileko lagun eta lankideen hitzak direnez pertsonaia honen barne erretratua egin dezakegu.

Oso liburu hunkigarria da, emozioz idatzita eta ez neutraltasun hotz eta aseptiko batekin. Idazleak ere parte hartzen du testigantzen aukera egiterakoan eta idazteko eran. Behin baino sarriago, negar malkoak ere ateratzen dira pasarteok irakurri eta pertsonaiarekin eta herriarekin identifikatuz.

Nire kasuan, hortik aparte, azken urteotako bizipenak gogorazi dizkit liburuak, jakinik Ekuador eta El Salvadorreko egoera ez dela berdina. Hala ere baserrietako elkarteen egoera, jende xehearen larritasunak, fede bizia... oso antzekoak dira.

2. Hasierako fedea

Aldaketa, konbertsio edo bihotz berritze handia ematen da bere bizimoduan. Hasierako urteetan, apaiz bezala eta gotzain laneko lehen urteetan ohizko fede bizi batetan murgilduta ikusten dugu Romero.

Denon lagun izan nahi, baina adiskide min aberats asko. Pobreenganako bada aukera eta ardura bat, baina apolitikoa, egiturak ukitu gabe.

Medellin hirian eman zen Amerikako Gotzain Konferentzia dela eta ez dago hasieran bat ere konforme: "El vivía en pie

¹ LOPEZ VIGIL, MARIA, *Monseñor Romero. Piezas para un retrato*, UCA editores, San Salvador, 1993. Guk dakigula gaztelaniaz sei argitalpen izan ditu gutxienez liburu honek, El Salvador eta Cuban, et itzulpenak ingelesez, frantsesaz eta alemaneraz.



Hilketaren bostgarren urteurrena. 1985.

de sospecha, no arrancaba. Desde un comienzo, cada vez que yo o cualquiera le mencionaba Medellín, el hombre se ponía nervioso y de qué manera le agarraba un tic" (65 or).

Aipamen berezia merezi du Los Naranjosetako Nekazarien hezkuntza etxearekin izan zituen gorabeherak. Hango hezitzaileen aurka apaiz komunistak zirela eta salaketa zegoen. Zuhur eta zalantzaz beterik ibili zen horretan Romero. Eta istiluak ere izan zituen (68-70).

Hala ere, bere ideologia guztia arren, ez zituen bazter batera utzi baserritarrekin elkarrizketak (65), Jainkoaren Hitzari buruzko elkarrizketak (67).

Profetikoa eta poetikoa gertatzen da santugile batekin daukan elkarrizketa (70), baserri munduko poesiaz beterik, santugileak laster bertako santu baten irudia egingo duela iragartzen dionean.

Eliz eredu ezberdinak, apaiz joera ezberdinak... ez dakit nik Jainko irudi ezberdinak ez ote dauden borrokan. Azkena zaila da justifikatzen, baina lehen bi puntuak argi eta garbi agertzen zaizkigu gotzaiberri San Migueleko apaizekin egiten duen lehen bilera (56).

"Zer itxaroten duzue gotzain honengandik?" galdetzen die elizbarrutiko apaizei. Apaiz bat estipendioak direla, beste bat bilerak direla... eta badira gutxi batzuk, honela diotenak:

"Monseñor, lo que esperamos es que usted nos deje equívocos. Y si nos equivocamos, usted nos dé razones y no órdenes".

3. Rutilio Granderen hilketa

Rutilio Grande apaizaren hilketa da, hain zuzen ere lehen apaiz eraila El Salvadorren (104), Romeroren bihotzberritzearen abiapuntua.

Bere fede tradizionallean, apaiz baten hilketak asko suposatu zuen. Horren ondorengo ekintzek (hiru egun eskola gabe ikastetxe katolikoetan, meza bakarra bere hiletarako beste guztiak bertan behera utzita...) zurrumurru eta arazo asko ekarri zuen.

“Ese aplauso ratifica la alegría profunda que mi corazón siente al tomar posesión de la arquidiócesis y sentir que mi propia debilidad, que mis propias incapacidades, encuentran su complemento, su fuerza, su valentía, en un presbiterio unido. ¡El que toca a uno de mis sacerdotes a mí me toca! (109)” hileta elizkizuneko hitzak ditugu.

Alde batetik bere ahulezia aitortzen du jendearen aurrean, bestetik bere apaiz eta herriarekin bategin nahia: barne kontrasesan honek jarraitu egingo du bere bizi guztian.

“Herri bateoa” une honetan izan zuela dio testiguak (109), ur-bateoa eta odol-bateoarekin konparaturik.

Bere aldaketa eta bihotzberritze bidea horretan doa.

Alde batetik bere artzapezpiku lanean eraginkortasuna bilatu: Caritasen (124, 120), irratian (123, 129).

Baina era berean pobreak eskaintzen dion janari apurra onartzen ikasi (119) bere txikitasunaren ezaugarri, jendeari entzun eta orduak eta orduak eman horretan (128, 134)...

Bere aldaketa eta horren arrazoiak kontatzen dizkio lekuko bati, honela bukatuz:

“Cambié, sí, pero también es que volví de regreso” (148-149), horrela laburbilduz: herritik Erromara, eta gero umeen heriotza, miseria, nekazarien hilketak, pobrezia, Rutilio apaizaren hilketa ikusirik herriarengana itzuli.

Kasu bat aipatzekotan, Felipe Chacón izan zenaren gorpua aurkitu zutenean, desitxuratua, zakurrez inguratua, aurpegiko azala kenduta: ez al da Isaiasek kantatzen duen Jainkoaren zerbitzariaren irudia bera? (162).

4. Arazoak eta larrialdiak

Liburuan zehar argi eta garbi ageri dira Romeroren arazoak bere hitz ausarta eta ekintza konprometituagatik.

Arazoak herri agintariekin eta familia aberatsekin. Hau prozesu luze baten ondorioa izan zen. Hasieran euren laguna izan bazen ere, urteak aurrera joan eta aldendu egiten zaizkio, eta azkenean aurka jarri. Jende aberats horrek ezin du jasan bere gehiegikeriazko jabetzaren aurkako hitzarik, eta gutxiago Eliz goi agintari baten ahotik badator.

Arazoak epaileekin, haien epelkeriagatik (180), irratiaz ere zabaltzen ziren bere igandeetako sermoietan ageri zirenak.

Arazoak militarrekin, eta Junta militar eta bere gobernu txo-txongiloekin...

Bere garrasia Amerikako Estatu Batuetako lehendakariari ere zuzenduko dio gobernu errepresiboari ematen dion laguntza ekonomiko eta militarragatik.


Baina Romero era berean kritikoa da gerrillari eta oposizio-ko taldeekin, eta zerbait esan beharra badauka, askatasunez esango die.

Nire ustez, hala ere, bere barru barruan arazo gehien sortu zizkioten iskanbilak, Eliz barruko jendearekin izandakoak dira.

Ikus dezagun puntutxo hau astiroago.

“Estos curas han armado una cosa que se llama Iglesia Popular, que no es nuestra Iglesia del Vaticano, la Iglesia que dirige el Papa, la Iglesia de la que nosotros somos creyentes” (156) esan omen zuen behin Roberto D’Aubuisson militarrek, telebistaz, Romeroren argazkia erakutsiz. Militar honek hain zuzen ere, eman zion tiro Romerori meza ematen zegoela, bere bizia akitu zien tiro erailea.

Hitz horiek gogorak dira, baina hauen arabera, hiltzailea eta eraila, biak ari dira Jaunaren izenean!!!



Hileta elizkizunetan emandako errepresioa, Katedralean.

Kasu larri hauetara heldu aurretik, hor daude arazoak El Salvadorreko gotzainekin (226), Nuncioarekin (174), Pueblako Gotzain Konferentzian izanikoak (223), Aita Santuarekin (284)...

Bere sensibilitadeko pertsona batengan horrek guzti horrek egonezina eta zalantza sortzen zizkion. Zeresanik ere ez barkadatea Elizako goi agintarien artean.

Aukera bat egiterakoan, lekukoek maiz azaltzen digute hitz egiteko eta elkarrizketa luzeak egiteko ohitura zeukala. Taldeka eginiko bilerak ere, arazoa larria bazen ongi asmatzeko irtenbidean. Eta beti beti, otoitz luzeak, Jainkoarekin hitz egin ilunpean argia ikusteko, aukeran bide zuzena asmatzeko, arazoetan indarra eukiteko.

“Yo le pregunto mucho al Señor en la oración si estoy equivocado y espero que él me ilumine. Se lo pido a ustedes también. Díganmelo, ayúdenme a aclararme” (300).

Hain larria gertatu zitzaion egoera hau, barne krisia, zalantza, batzuen konprentzio eza... azkenean ea burutik gaizki ote zegoen bururatu zitzaion. Hori dela eta, beste nortasun batetan ezkutatuta, Mexikora joan zen psikiatra batengana. Hiru egun egin zituen bertan azterketak, testak eta elkarrizketak egiten medikuarekin. Azkenean aitortu zion nor zen eta bere bisitaren zergatia (301-303). Medikiak argi esan zion burutik sano zegoela, oso sano, nekatuta, hori bai, eta atsedean egun batzuk hartzeko.

Romeroren zalantza nagusi bat ea askea zen hainbat eraginen artean zen.

Halako pertsona batek halako bitartekoak hartzeko, barruko egonezina eta zalantza astun eta handi egin zitzaizkiolakoan izan behar. Mexikon, batzuen eta besteen presiopetik libre, bere burua sano ote zegoan ziurtatu nahi zuen laguntza neutral batekin. Jeremias gureak ez zituen bere garaian halako mediorik, eduki bazituen, ez ote zen joango medikuarengana?

5. Heriotzaren susmoa

“Mi otro temor es acerca de los riesgos de mi vida. Me cuesta aceptar una muerte violenta, que en estas circunstancias es muy posible, incluso el señor Nuncio de Costa Rica me avisó de peligros inminentes para esta semana...

Pongo bajo la providencia amorosa de Dios toda mi vida y acepto con fe en él mi muerte por más difícil que sea (...). Me basta para estar feliz y confiado saber con seguridad que en Él está mi vida y mi muerte, que a pesar de mis pecados, en él he puesto mi confianza y no quedaré confundido y otros proseguirán con más sabiduría y santidad los trabajos de la Iglesia y de la Patria” (bere azken erretiro espiritualean, 1980. Otsailaren 25ean) (355).

Hitz gogorak. Hitz argiak. Jakitun dago arriskuan bizi dela.

Hasieran nekazariak, oinarrizko kristau elkartectako kideak eta katekistak izan ziren erailak. Ondoren apaizak. Bere fedekak ez zion ezkututzen bere bizia arriskupean, arrisku larrian zegoela.

“A mí también, pronto me van a barrer a mí también...” (368) esan omen zuen martxoaren 17ean.

Militar bat ere joan zitzaion adi egoteko eta seguridade pertsonala eskaintzera (369-370). beraz zurrumurrua zabaldua zegoen.

Kazetari batzuei ere, Mexikoko *Excelsior* egunkarian agertzeko, honela esan zien:

“Sí, he sido frecuentemente amenazado de muerte, pero debo decirle que como cristiano, no creo en la muerte sin resurrección. Si me matan, resucitaré en el pueblo salvadoreño. Se lo digo sin ninguna jactancia, con la más grande humildad. Ojalá, sí, se convencieran de que perderán su tiempo. Un obispo morirá, pero la Iglesia de Dios, que es el pueblo, no perecerá jamás” (370-371).

Romerok bertan, Kristoren piztueraren fedez, Jeremiasen aldean abantaila handia dauka. Arazoa arren, heriotza hurbil sentitu arren, piztueraren fedea bizkortzen du fededuna.

Eta Romero bizizale da, ez da gaixo bat edo masokistaren bat.

“Se lo digo honradamente: yo no tengo vocación de mártir, no la tengo. Claro que si eso es lo que Dios pide de mí, ni modo. Yo sólo le pido entonces que las circunstancias de mi muerte no dejen ninguna duda de lo que sí es mi vocación: servir a Dios, servir al pueblo. Pero morir ahora no, quiero un poco más de tiempo...” (371).

Gizakia hemen barne barnetik puskatuta ikusten dugu: alde batetik bizi nahi du, ez da martiria... Zereginak ditu, egitasmoak, bere Eliza eta herriarekiko betebeharrak... Bestetik jakitun dago bere pastoralara bide berdinetik jarraitu ezkerro, heriotza hurbil duela. Nahi eta ezin. Bizi eta hil. Jaunaren hitzari zintzo erantzun arazoa arazo...

Egun gutxi barru, martxoaren 24ean, arratsaldeko 6etan, Meza ospatzen zegoela balaz hil zuten “profeta zela ez zekien profeta” (198), Oscar Romero.

6. Azken hitza: bizitza

Gure idazlana amaitzen dago. Esanguratsua Romeroren ibilbidea. Normalean zenbat eta urte gehiago eduki, gutxiago arriskatzen dugu gure bizimoduan. Romerok alderantzizko bidea egin zuen: edadean gora, profeta bilakatu zen herri harentzako. Ez berak hala nahi izanda, herriak eskatu eta Jainkoarekin otoitz luzeetan elkarrizketatuta baizik.

Elizaren hierarkian gorantz egin beharrean, une batez behera begiratu, bere herriaren sufrimendua eta fedea sufritu eta sinistu eta bihotzberritu zen.

Ez arazorik gabe, tentsio artean baizik. Jeremiasek Erregeri egiten bazion oihu, bere apaiz eta jauntxoei, Romerok



*Doktore Honoris causa izendapena, Georgetowneko Unibertsitatean,
AEB. 1978. otsaila*

Gobernuari, militarrei, herriaren goseaz asetzen direnei egingo die salaketa.

Alde handia ostera, Romerok Kristo berpiztuarengan jarri du esperantza eta horrek beste kolore bat ematen dio bere barne barneko egonezinari. Beraz azken hitza bizitza da:

“El país está pariendo una nueva edad y por eso hay dolor y angustia, hay sangre y sufrimiento. Pero como en el parto, dice Cristo, a la mujer que le llega la hora sufre, pero cuando ha nacido el nuevo hombre se olvidó de todos los dolores.

¡Pasarán estos sufrimientos! La alegría que nos quedará será que en esta hora de parto fuimos cristianos, vivimos aferrados a la fe en Cristo, y eso no nos dejó sucumbir en el pesimismo.

Lo que ahora parece insoluble, callejón sin salida, ya Dios lo está marcando con una esperanza. Esta noche es para vivir el optimismo de que no sabemos por dónde, pero Dios sacará a flote a nuestra patria y en la nueva hora siempre estará brillando la gran noticia de Cristo” (397).

7. Gehigarria: Romero gotzaina Jeremias profeta azaltzen

Bukatu orduko, hona Romerok El Salvadorreko katedralean, 1978. Irailaren 3an eginiko homiliaren pasartetxo bat. Egun horretan Jer 20, 7-9 suertatzen da igandeetako irakurgaien artean. Hona Jeremiasen testua:

“Liluratu egin nauzu, Jauna,
eta ni zure lilurapean erori;
bortxatu egin nauzu eta menperatu.
Barregarri gertatu naiz egun osoan,
burlaka ari zaizkit denak.
Hitz egin behar dudan bakoitzean
garrasi egin behar izaten dut
laguntza eske,

indarkeria eta zapalkuntzaren aurka
hots egin.
Zure hitza iragartzen dudalako, oi Jauna,
irain- eta iseka-bide naiz egun guztian.
Pentsatu izan dut:
“Ez dut berriro Jauna aipatuko,
ez dut haren izenean hitz egingo”.
Baina, orduan, suaren antzeko zerbait
sentitzen dut barruan,
eta hezurretaraino erretzen nau;
saiatzen naiz itotzen, baina ezin!”

Eta orain irakur ditzagun Oscar Romeroen komentarioa:

“Pero el ejemplo, para mi, mas conmovedor en esta mañana es el de la primera lectura: el profeta Jeremías. Yo no encuentro en la Biblia unas frases que expresen más al vivo la crisis de un hombre en sus relaciones con Dios.

Me sedujiste, -le dice al Señor- me has engañado, me has dicho que me mandabas a arrancar, a destruir; pero también a construir, a plantar, a edificar y de mi boca de profeta, donde quiere salir sólo lo que tú dices, no sale más que violencia, guerra, destrucción. Imaginen hermanos, el temperamento de Jeremías, un profeta dulce, un profeta más inclinado al amor, un profeta de delicadezas espirituales que representa precisamente, en el Viejo Testamento, la figura dulcísima de Cristo; pues este profeta de amor, de dulzura, de ternura, de bondad, es escogido por Dios para anunciar a un pueblo pecador, la destrucción, la amenaza de Dios si no se convierten. ¡Y le duele! Cuántas veces, dice, quise callar la voz de Dios en mi y la palabra de Dios era en mis huesos como fuego que devora y me obliga a hablar. Esta es la crisis del profeta. No quisiera decir lo que dice, pero Dios le manda a decir. (...)

Para que vean que la Cruz no es conformismo. Es exigirle al hombre, muchas veces, hasta contra su temperamento, contra su modo de ser, es lo que está pidiendo Cristo a Pedro:

que no se acomode, que no se instale, que van a subir a Jerusalén a sufrir. Es lo que llora el profeta Jeremías, es lo que siente en esa misión durísima”.

Jose Mari Kortazar